

# berriak Triforio-tik



araba  
álava

## Katedrala bisitatzeko aukera gehiago Aste Santuan

Aste Santua eta uda dira Santa Maria Katedralak bisitari gehien izaten dituen sasoiak. Gasteiz turistez josita egoten da, eta jaiegun horiek aprobetxatzen dituzte uztai berdea, Alde Zaharra, museoen eskaintza bikaina eta askotariko gastronomia gertutik ezagutzeko. Duela zenbait urtetik, Alde Zaharra bisitatzean nahitaezko geraleku bihurtu da Santa Maria Katedrala.

Hainbeste jende hartu ahal izateko eta inor gera ez dadin eraikina bisitatu gabe, egun horietan Bisitarien Zentroak ordutegia zabaldu du, eta talde-kopurua areagotu. Hala, asteburu arruntetan 14 eta 16 talde bitartean egon ohi badira, Aste Santuan 24 eta 30 bitartean egon daitezke, egunaren arabera. Hori dela eta, bisita gidatua egin nahi dutenei gomendatzen diegu telefonoz deitzeko edo zentrora gerturatzeko, izan ere, eskariaren arabera, bisita-aukera berriak sortuko dira.

Eskaintza oso zabala da: bisita luzea egin daiteke, eta eraikinaren berezitasunak, historia eta zaharberritze-lanak soilik ezagutu; edo dorrera ere igo daiteke, hiriaren ikuspegi bikainaz gozatzeko; eta, nahi izanez gero, Erdi Aroko harresia ere ikus daiteke.



### Erreserbak:

Bisitarien Zentroa, Burulleria plaza

Telefonoa: 945 255135

[www.catedralvitoria.eus](http://www.catedralvitoria.eus)



## Familientzako bisitak

Aste Santuko oporrak direla eta, familientzako bisita gehiago eskainiko dira apirilean. Ibilbideak gaztelaniaz apirilaren 6an, igandea, 18:00etan, eta apirilaren 19an, ostirala, 17:30ean, izango dira. Ibilbideak euskaraz, berriz, apirilaren 13an, larunbata, 18:00etan, eta apirilaren 21ean, igandea, 17:30ean. Beti bezala, bisitari gazteenei egokitutako hizkera erabiliko da, azalpenak uler ditzaten, eta ibilbidez gozatu.



## Bisitarien zentroak itxura berria du

Santa Maria Katedraleko Bisitarien Zentroa zaharberritu egin da azken hilabeteetan. Duela bi hamarkada ireki zen, Gasteizko katedrallean bisita gidatuak abiarazi zirenean; hori da turistek ezagutzen duten lehen espazioa. Ken Follett idazlearen eskulturak, Casto Solanok egina, eta urteen poderioz beren distira galdu arren hura berreskuratu nahian dabiltzan kanpaiek ongietorria ematen diete bisitariari zentroaren aurrean; bertan, Santa Maria ezagutzeko ibilbide gidatuei, ordutegiei eta eskuragarritasunari buruz informa daitezke.



Horrez gain, zenbait souvenir eta katedralari zein hura birgaitzeko lanei buruzko argitalpenak ere eskuragarri daude. Bisitariak zentroan denbora laburra igarotzen badute ere, espazioa zaharberritu egin da, bidaiarien beharretara egokitze aldera. Harrera eta bisitariak artatzeko espazioa modernizatu dira, eta, itxura

berria emateko, kartel eta seinale berriak jarri dira. Halaber, altzari guztiak aldatu dira, eta berokuntza-sistema hobetu. Hobekuntza hauekin osatu egin dira joan den urtean komunetan egindakoak, irisgarritasunari buruzko araudia betetzeko beharrezkoak. Horiei esker, emakumeentzako bi komun daude, gizonentzako beste bi eta beste bat unibertsala; azken horrek, gainera, haurren aldalekua ere badu. Katedraleko bisitarien zentrotik 80.000 pertsona baino gehiago igarotzen dira urtero.

## Korrika 2019

Apirilaren 14an, igandea, Korrika Gasteizera helduko da, eta hori izango da 2019ko edizioaren azken etapa. Santa Maria Katedrala Fundazioak ere ekarpena egin nahi du euskararen aldeko lasterketan. Hori dela eta, Korrika Lagunak txartela duten pertsonak % 10eko deskontua izango dute katedrala bisitatzeko sarreran.



## ASTE SANTUKO KONTZERTUA

Apirilaren 11n, osteguna, kontzertua egingo da Santa Maria Katedralaren habearte nagusian, Aste Santua dela eta. Gasteizko elizbarrutiak eta Santa Maria Katedrala Fundazioak antolatu dute, eta Coda abesbatza izango du protagonista. Cantos de la Semana Santa aurkeztuko du, epe horretako liturgia-abestietan ardaztuta dagoen musika-emanaldia.

Coda abesbatza 2013an sortu zuten Burgosen musika koralaren zenbait zalek, proiektu musikaletan parte hartu ohi zutenak. Ahots baxuko pertsona talde txikia da, eta bizirik mantentzen du edozein garaiko kantuarekiko interesa: kantu primitiboetatik, musikaririk modernoenera. Hala ere, kantu gregorianoa da gehien interesatzen zaiona. Zuzendaria Fidel González da. Errezitala 19:00etan hasiko da, eta sarrera doakoa izango da, habeartearen edukiera bete arte.



### Liturgia-ospakizunak

Ostegun Satua eta Ostiral  
Santua:  
Meza 19:30ean

Larunbat Santua:  
Pazko Bijilia 20etan

Pazko-domeka:  
Meza 12etan